



ESKOLAKO OHARRAK

MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN EGUNA

Duela egun batzuk, martxoaren 8a zela eta, Emakumearen Nazioarteko Eguna, gure eskola komunitatean hainbat inkesta zabaldu genituen. **Inkestetan egiten ziren galderen helburua, gizon eta emakumeen artean zegoen ezberdintasuna eta gizon eta emakumeen arteko arrakala azalera zen.** Horregatik, aipaturiko galderen artean, erantzuteko aukeratan ez ziren azpimarratzen gizartean dauden familia eredu guztiak.




Ondorioak

Dakizuen bezala, gizarteko bi alor ezberdin jorratu genituen. Alde batetik, etxeko lanak eta beste aldetik, lanbideak. Azken urteetan bide handia egin baldin bada ere, oraindik ere emakumeek hartzen dute etxeko lanen ardura handiena, adibidez arropa lisatzerakoan, familien %66etan emakumeak hartzen du ardura hori; era berean, etxeko konponketen %60a gizonaek egiten dute.


Zure etxean nork lisatzen du?

277 erantzun



Nork egiten ditu etxeko konponketak? (entxufeak aldatu, bonbilak aldatu,...)


277 erantzun



Lanbideei dagokienez, orokortuago dago, bai gizonetzkoek bai eta emakumezkoek ere, lanbide guztiak egin ditzaketela pentsatzea. Hala ere, kamioilari eta igeltsero lanetarako, oraindik badira gionezkoak soilik egoki ikusten dituzten pertsonak.


Nork egin ditzake igeltsero lanak?

277 erantzun



Nor izan daiteke kamioi gidaria?

277 erantzun



Berdintasunerako bidea egin baldin badugu ere, oraindik badugu lana.

ALAIART

Hurrengo asteetan zehar, eskolako ikasle ohia den Alaia Gaztelumendiren eta Abaraxka Ludotekaren artean, bidegorriko komunitateko eraikinean, mural bat egiteko asmoa dute. Honetarako, erreziklatutako materialak behar dituzte: azulejo zaharren zatiak, plastikozko tapak,... Hauek eskolara ekar ditzakezue eta zuzendaritza bulego aurreko eremuan dauden kaxatan utz ditzakezue.




COVID19

Lerro hauetatik gogorarazi nahi dizuegu, datuak orokorrean hobeak baldin badira ere, COVID19agatik gure kontingentzia plana indarrean dagoela, hori dela eta, ikasleak jasotzera heldu bakarria sar daitekeela eskola eremura.

Bestalde, gure kontingentzia planean jasota dagoen bezala, etxean bazkaltzen duten ikasleek, 14:40etan dutela eskola eremura sartzeko ordua.

Hau dena kontutan har ezazue, mesedez. Eskerrik asko



UDALEKU IREKIAK

Oiartzungo 2021eko udaleku irekietan izena emateko epea zabalduko dute, martxoak 15etik 28ra hain zuzen ere. Informazioa, zuen helbide elektronikora bidaltzeaz gain, ondorengo telefono zenbakietan ere aurki dezakezue: 645005496 eta 943506412.

A colorful abstract background with splashes of blue, red, yellow, and green. The text is overlaid in white and black. The main title is 'OIARTZUNGO UDALEKU IREKIAK 2021' in large white letters. Below it is '- UZTAILAK 1-30 -' in smaller white letters. Then '1 Hamabostaldia 1-15' and '2 Hamabostaldia 16-30' in white. Below that is 'IZEN EMATEA' in white, followed by 'Martxoaren 15etik - 28ra' in white, 'ONLINE GALDETEGIA BETEAZ' in white, and 'WWW.GAZTEOIARTZUN.NET' in white. At the bottom right, 'HARREMANETARAKO:' is in white, followed by 'udalekuak.oartzun@gmail.com' in white and '645 005 496' in white. At the bottom left, 'OHAR' is in white, followed by 'GARRANTZITSUA:' in white, 'udalekuak COVID19-' in white, 'aren egoeraren baitan' in white, and 'burutuko dira.' in white. At the bottom center, there is a logo for 'ABARAXKA' featuring a bee and a honeycomb, with the text 'ABARAXKA' and 'OIARTZUNGO UDAL LIBROTERA' below it. To the right of the logo is the logo for 'OIARTZUNGO UDALA' featuring a red shield with a white castle tower and the text 'OIARTZUNGO UDALA' below it.

